



Ekin I+Zri!

Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida
praktikoa gazteentzat

aps 
aprenentatgeservei
CENTRE PROMOTOR


fundazioa
zerbikas
ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

© Katalanezko jatorrizko testua eta edizioa:
Centre Promotor d'Aprenentatge Servei
www.aprenentatgeservei.cat
Provença 324 - 08037 Bartzelona

© Edizio hau:
Centre Promotor d'Aprenentatge Servei

Zerbikas Fundazioa
www.zerbikas.es

BILBAO

Indautxu kalea 9, behea

DONOSTIA

Bizkaia pasealekua 15-16, behea

VITORIA-GASTEIZ

Errege atea 20, behea

Eskerrak:

- Ekin I+Zri! posible egin duten erakunde eta pertsona guztiei.
- Jordi Maduelli, testua gaztelaniara ekarri izanagatik.

Diseño: Clic Traç, SCCL

ISBN: 978-84-9726-542-3 • D.L.: BI-3273-2010

Eskubide guztiak gordeta

Espainiako Ikasketa-Zerbitzua Sareak elkarlanean
egindako lana dugu edizio hau.

A decorative horizontal line consisting of a series of colored squares in various colors including blue, purple, pink, red, orange, black, brown, light blue, yellow, olive green, teal, dark grey, and dark blue.

Ekin I+Zri!

Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida
praktikoa gazteentzat

Aurkibidea

1. Talde bat, proiektu bat	5
Proiektu bat duenak altxorra du	6
Gizartearen mesederako zerbitzu-proiektuak	8
Elkartasunezko proiektu-motak	10
I+Z: besteei mesede eginez ikastea	14
2. Gara dezagun proiektua	17
1. fasea: proiektuaren zirriborroa egin	20
2. fasea: gizarte-erakundeekin harremanetan jarri	22
3. fasea. proiektua planifikatu	24
4. fasea: proiektua gauzatu	28
5. fasea: proiektua balioetsi	30
3. Proiektu arrakastatsuen gakoak	33
4. Informazio gehiago	39

1 Talde bat, proiektu bat





Proiektu bat duenak altxorra du

Guztiok ditugu era askotako proiektuak: txikiak, handiak, banakakoak, taldekoak, epe laburrekoak, epe luzeak, eta abar.

Proiektu bat daukagunean, helburu bat jartzen dugu gure buruari, eta, hura betetze aldera, zenbait jarduera martxan jartzen ditugu. Proiekturik gabe bizitzea ez da posible, hau da, egunean eguneango bizitzaren pizgarri diren ideiarik eta ilusiorik gabe.

Hazi eta aurrera egin ahal izateko, pertsonok erronken eta ahaleginen beharra dugu; eta proiektuek, hain zuzen ere, horretarako bide ematen digute. Azken batean, proiektuak dira animaliangandik bereizten gaituena! Hala ere, ideia edo asmo onak eduki-tzearekin ez da nahikoa; ekintzetara igaro behar dugu.

Proiektuek, bestalde, gauza positibo asko ekartzen dizkiete gazte-taldee:

- Erronkak eta aukerak ekartzen dituztenez, gazte-taldea lehen baino interesgarriagoa bihurtzen dute proiektuek.
- Proiektuak garatzean, gazteek gauza asko ikasten dituzte.
- Gure izaera eraikitzeko eta egunean eguneko arazo txikiak erlatibizatzeko lagungarriak dira proiektuak, gure sudurretik harago begiratzerara behartzen baikaituzte.
- Ondo sentiarazten gaituzte; gogobete egoteko arrazoiak ematen baitizkigute.

Beraz, eskuen artean proiektu bat duen taldeak altxor handia du, proiektuak baitira bakarka edo taldean hazteko eta gure buruarekin pozik egoteko tresna.



“Protagonista izateko aukera suertatu zitzaigun. Erabakia hartzeko. Gauza garrantzitsu bat egiteko. Gakoa horixe izan zelakoan nago.

Denboraren poderioz konturatu naiz, ordea, auzi horretan xedeak zuela garrantzirik gutxien. Mintzagai dugun proiektua zuzen-zuzenean sustatu izana da, hain zuzen ere, gogoan gordetzen duzun gauza horietako bat da, itzal sotil eta gardena uzten duten horietakoa, inor hotz-epel uzten ez duena.

Ondoren, egun handia etorri zen; egun handi, gorri eta bizia. Egun hartan dena ongi atera zen, ezin bestela. Jendeak bikain hartu zuen proiektua, eta parte-hartzea itzela izan zen.

Helburua lortzeaz gain, helburua guk geuk eta bakar-bakarrik lortu genuela konturatu ginen talde hartako gazteok; gai ginela, aurrekaria ezarri genuela, beste mundu bat posible egin genuela... Beraz, zergatik ez proiektu hura handitu? Beste mundu bat posible da; guk frogatu genuen”.

Raúl Juan



PASALACABRA proiektua, ADSIS elkartea

Gazteek kontzertu solidario bat antolatu zuten, beraien erara.

Batzuek litxarreriak jaten dituzte bete-bete egin arte, eta, ondoren, etsien eran ibiltzen dira hartutako kiloak ezin galduta. Munduko beste zoko batzuetan, ordea, jendea goseak da.

Hizpide dugun proiektu horren bidez gazteek kontzertu bat antolatu zuten. Kontzertu horren helburu nagusiak bi ziren: batetik, auzokideak gaiarekin arduraraztea, eta, bestetik, dirua lortzea jateko arazoak dituen Catzuquí de Velasco (Ekuador) herriarentzat hiruzpalau ahuntz erosteko.






Gizartearen mesederako zerbitzu-proiektuak

Badira proiektutzat hartzen ditugun zenbait nahi edo desira pertsonal, hala nola: ingelesez ikastea, hondartzarako txangoa prestatzea, musika-talde bat sortzea, ustekabeko jaia prestatzea, eta abar. Badira, baita ere, oso bereziak diren zenbait proiektu: gizartearen mesederako zerbitzuak eskaintzea, alegia.

Gizartearentzako zerbitzuen berehalako onuradun ez gara gu, beste pertsona batzuk baizik. Herritar ororen bizi-kalitatea hobetzea da proiektu horien helburu nagusia, bai eta zailtasunak dituzten edo bazterketa, bidegabekeriak edo bakardadea pairatzen duten taldeen baldintzak hobetzen laguntzea ere.

Gizartearen mesederako proiektuak



Gizartearen mesederako zerbitzu-proiektu bat sustatzeko:

- Inguruan ditugun pertsonen egiazko beharrak hauteman eta ulertu behar ditugu.
- Norberaren interesak taldearen interesen atzetik jarri behar ditugu.
- Oraingoa baino gizarte bihozberagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko konpromiso zehatz eta praktikoa hartu behar dugu.

Labur esanda: gizarteari zerbitzatzeko proiektu batean parte hartzea herritartasunean parte hartzeko eta hura gauzatzeko modurik egiazkoenetako bat litzateke.

“Ordenagailua erabiltzen irakatsi diegu informatikaz ezertxo ere ez zekiten edadeko pertsoneri. Eskolak prestatu behar izan genituen; hasierako kirioak mende hartu; eta gure aitona-amonak izan daitezkeen pertsonekin harremanetan egon.

Haiei irakastean, gainera, irakasleek sentitzen dutena bizi genuen”.

Álvaro Ataz



ALFABETIZACIÓN DIGITAL proiektua, Tomillo fundazioa, Madril

Eskolan arrakasta izan ez duten gazte solidarioek informatika irakatsi diete horren beharra duten pertsoneri.

Edadeko pertsona, etorkin nahiz mendeko pertsona asko komunikazio digitalaren mundutik kanpo daude. Errealitate horri aurre egiteko asmoz, Hasierako Gaikuntza Profesionalerako Programetako ikasle gazteak doako ikastaroak emateko prestatzen dira, lehen aipatutako pertsona horiek ordenagailua erabiltzen ikas dezaten.

Ikastaro horiek egitean, aldez aurretik eskolan porrot egin duten gazteek ikasi egiten dute, auzoan aktiboki parte hartzen dute, zulo digitala ezabatzen laguntzen dute solidarioki, eta beraien gaitasun guztiak nahiz aukera berriak martxan jartzen dituzte.



Elkartasunezko proiektu-motak

Era askotan sailka ditzakegu gizartearen mesederako zerbitzuen proiektuak. Gaika sailka daitezke, eta, adibidez, ondoko 9 kategoria hauetan banatu:

1. Besteei jakintzak eta trebetasunak irakasteko proiektuak:
Eskola-laguntza, etorri berrientzako hizkuntza-
eskolak, zulo digitala ezabatzeko ikastaroak, eta
abar.
2. Zailtasunak dituztenei laguntzeko proiektuak:
Baztertze-arriskuan dauden pertsonak, etorkinak,
urritu fisiko edo psikikoak, bakarrik sentitzen di-
ren pertsonak, eta abar artatzeko.
3. Edadekoekin jarduerak antolatzea:
Tokiko historia berreskuratzeko, edadeko perso-
nentzako nahiz gazteentzako proiektuak susta-
tzeko, eta abar.



“Gure auzoaren ikuspegi positiboa eman dezaketen pertsonak elkarrizketatzen ditugu. Bideoan grabatzen ditugu elkarrizketa horiek, baita ahots-zintetan ere. Ondoren, bideoetako testua editatzen dugu, eta elkarrizketatu ditugun pertsonen erantzunak idazten ditugu. Elkarrizketatuari, baita ere, argazki-erreportajea egiten diogu, eta gaztaroko nahiz haur-tzaroko haren argazkiak eskaneatzen ditugu.

Bildutako material guztiarekin erakusketa bat antolatuko dugu auzoan, eta liburu eta bideo bana egingo ditugu. Oso pozik nago lan hau egin izanaz. Hemen bizi den jende on askoa ezagutzera emanez, gainera, gure auzoak duen ospe txarra aldatzea espero dugu”.

Cristina Angulo Rosa



REPORTEROS DE BARRIO proiektua, Asta Regia BHI, Jeréz de la Frontera

Berri-biltzaile gazteek beraien auzoko harri bitxiak begien bistan jarri dituzte.

Hiriko eremu txiro batean dago gure egoitza. DBHko 4. mailako Proiektu bateratua ikasgaiaren barruan, jarduera bat gauzatzen da. Jarduera horren helburua da, hain zuzen ere, auzoko pertsonen alde onak nabarmentzea, bertan gauzatzen diren elkartasunezko egitasmoak ezagutzera ematea, eta herritar-elkarteen nahiz horiek gauzatzen dituzten jardueren berri ematea.

Bildutako material guztia hainbat bidetan hedatuko dute: egunkarietan, telebistan, irratan eta auzoan egingo diren erakusketetan.



4. Ingurumena zaintzen laguntzea:
Mehatxaturik edo hondaturik dauden eremuak leheneratzea, birziklatzea, energia aurrezte, to-
kiko fauna zaintzea, eta abar.
5. Orentzako jarduera herritarrak edo kulturalak antolatzea:
Kultura arteko jarduerak, herritarrentzako kan-
painak, herriko jaiak, herri-mobilizazioak eta alda-
rriak, eta abar.
6. Kultur ondarea zaintzen laguntzea:
Ondare arkitektonikoa, historikoa eta artistikoa
zaintzeko eta hedatzeko lanak, ibilbide turistikoak
diseinatzea eta antolatzea, eta abar.
7. Elkartasun- eta lankidetzakantainetan parte har-
tzea:
Giza eskubideak babestea, gai humanitarioeta-
rako dirua biltzea, eta abar.
8. Osasuna eta arriskuen prebentzioa sustatzea:
Bizimodu osasungarriak zabaltzea, menpekotasu-
nak prebenitzea, odola emateko kanpainak egi-
tea, eta abar.
9. Hedabideak medio, herritarrak sentikor bihurtzea:
Gizartearen arazo bat edo kausa sozialen ba-
ten berri hedabideetan ematea –aldizkarietan,
irratsaioetan, telebistako saioetan, bideoen bidez,
eta abar–, hura tokian toki ezagutarazteko asmoz.



“Joan den ikasturtean, ingurumenarekin lotura zuten hainbat jarduera egin genituen ikasgelan. Jarduera horien bidez, batik bat, ingurumena babesten eta hura lehen baino askoz gehiago balioesten ikasi genuen.

Horrez gain, edateko urik ez duten herrialde azpigaratu askoren berri eman ziguten. Gezurra badirudi ere, haurrak esplotatzen dituzte oraindik, eta, horregatik, bidezko merkataritza lehen baino gehiago balioesten ikasi genuen.

Gainera, ikaskideei ikasitako guztiaren berri emateko asmoz, eskola bat antolatu behar izan genuen. Eskola hartan, nabarmendu genuen guk erosotasun guztiak ditugula eta harago jo behar dugula munduari aurrera egiten laguntzeko”.

Alberto Casado Gudiel



MEDIADORES EN CAMBIO CLIMÁTICO proiektua, *IPADE F. – Puerta de Cuartos de Talavera BHI*

Gazteek ingurumen-hezkuntzan trebatu dituzte beren ikaskideak.

Herrialderik txirotueneren bizirautea natur baliabideen mende dago. Hortaz, planetako ingurumen-arazo nagusiek eragin handia dute herrialde horien gain. Arazo horiek aztertzen baditugu, beraz, ulertu ahal izango dugu Giza Garapen Iraunkorra zer den eta kontzeptu hori lantzeak ingurumen-krisialdia gainditzen nola lagun dezakeen.

Mintzagai dugun proiektu horren bidez, ikasleek ezagutu dute egunean eguneango gure jarduerak klima-aldaketaren eta ingurumena babestearen gain duten eragina.



I+Z: besteei mesede eginez ikastea

Gizartearen mesederako proiektuetan, zerbitzua hartzen duten pertsonak (haurrak direla, helduak direla, auzokoak direla, adinekoak direla, eta abar) nahiz zerbitzua eskaintzen duten gazte protagonistak, oro dira onuradun; “zerbitzuan parte hartu eta hura gauzatzean anitz ikasten da; horixe litzateke gazteon irabazia”.

I+Z proiektuetan dihardutenek asko ikasten dute beren egitekoan. Horixe da, hain zuzen ere, gizartearen mesederako gainerako proiektuetatik I+Z proiektuak bereizten dituenak.

I+Z = ikasi eta zerbitzatzeko proiektua

Zer onura izan dezakegu ordainetan?

- Era guztietako jakintzak gogora ekarri eta sakon aztertuko ditugu, gizartearentzat zerbitzua eskaintzean horiek guztiak aplikatu behar baititugu.
- Komunikazio-gaitasunak landuko ditugu eta lotsa gairidituko dugu; zerbitzua egitean era askotako pertsonekin harremanetan baikaude.

- Antolatzeko gure gaitasuna hobetuko dugu; antolakuntzarik gabe ezin baitaiteke aurrera atera eskaini nahi dugun zerbitzua.
- Munduaren gure ikuspegia osatu eta hobetuko dugu, egiazko pertsonen benetako arazoekin egingo baitugu topo zerbitzua eskaintzean.
- Gizartea hobetzearen alde lanean ari diren gizarte-erakundeen eta GKEen mundua ezagutuko dugu.
- Eta, batez ere, gauzak aldatzea posible dela ikusiko dugu.



“Iaz, haur txikiak zaintzen ikasi nuen, atsegin handiz, Esplai La Floridan. Begiraleekin batera ari-tu nintzen lanean. Haiek zaindu ninduten, eta ni boluntario-ikastaroan gustura egoteaz ardu-ratu ziren.

Bizipen hura atsegingarria izan zen oso, begiraleei lagundu eta haurrei irakastean haien-gandik asko ikasi bainuen neronek ere. Oso ekimen polita da, haurren mundura hurbiltze-ko aukera ematen baitigu. Anitz ikasten ari naiz adin desberdinetako haurren jokabideari buruz, eta, bidenabar, haur horiek nola zaindu behar diren ikasi dut.

Primeran pasatu nuen, eta, aldi berean, haurrak zer-nolako esker oneko diren ikasi.

Horrez gain, irabazi asmorik gabeko jarduera egitearen poza ezagutu nuen”.

Sheila González



JÓVENES POR EL BARRIO proiektua, *Eduard Fontseré BHI – Esplai La Florida*

Auzoko astialdi-elkartean, begiraleari laguntzen diote gazteek.

Auzoko familia askok egun osoan egiten dute lan. Horregatik, gero eta jende gehiagok jotzen du astialdi-elkartera, eta, ondorioz, begiraleak lanez gainezka dabilta.

Proiektu horren bidez, batxilergoko gazteek boluntario izateko ikastaro bat egiten dute, eta, ondoren, haur txikie-
nekin egiten dituzte praktikak, astialdi-elkarteko begiraleei laguntzeko.

2 Gara dezagun proiektua





Antola gaitezen!

Gizartearen mesederako proiektu bat ezin daiteke bat-batean egin! Ardura handiz antolatu behar dugu lana!

Horregatik, komenigarria da prozesuko fase eta urrats guztiak kontuan izatea: proiektua diseinatze-tik hasi eta azken ebaluazioa egin arteko guzti-guz-tiak. Proiektuko faseak gogoan izatea lagungarri ger-tatuko zaigu gauzatu behar ditugun atazak ordenan jartzeko, eta funtsezko alderdiak ez ahazteko.

Zer urrats eman behar ditugu?

Bada proiektu guztietan erabiltzen den ordena xume bat. Ordena hori oinarrizko hiru une hauetan bana-turik dago: proiektua prestatzea, gauzatzea eta eba-luatzea.

Faseak, edonola ere, are trinkotu ditzakegu, eta hiru beharrean, proiektua bost fasetan banatu:

1. Proiektuaren zirriborroa egin.
2. Gizarte-erakundeekin harremanetan jarri.
3. Proiektua planifikatu eta egituratu.
4. Proiektua gauzatu.
5. Proiektua balioetsi.



“Gogoan dut, esaterako, sekulako harri puska aurkitu genuela, eta hainbaten artean atera behar izan genuela tokitik. Ez dut sekula ahaztuko harri puska hura geure eskuekin mugitzeko gai izan ginenean hartu genuen poza.



Egitasmo honen bidez hainbat gauza ikasi ditut: elkarbizitzen, egitekoak guztion artean banatzen, taldean lan egiten, eta abar. Baina, batez ere, geure buruan eta ingurukoengan konfiantza izaten irakatsi digu “Ocupados” proiektuak. Orain badakigu parean jartzen zaigun edozer erronka gainditzeko gai garela.

Ez diogu arkitekto bati eskatu aterpea egin dezala; hamaika esku txikik eraiki dute, harri gainean harria jarriz. Baliteke esku txiki horiek, banaka, gai ez izatea aterpea eraikitzeko, baina guztion ahaleginak batuz, geure aterpea egitea lortu dugu, Espainiako herri bateko mendi soil batean. Horrexegatik da horren berezia gure aterpea”.

Laisica Dos Santos



OCUPADOS EN CONSTRUIR proiektua, **INJUCAM** federazioa, **Madril**

Nerabe eta gazteek mendi-aterpe bat eraiki dute.

Hainbat elkartetako gazteentzako aterpea eraiki zuten. Haren bidez, hainbat helburu bete nahi izan dira: parte hartzen ikasteko eta parte-hartzea lantzeko esparru bat edukitzea, beste pertsona batzuekin gozatzea, iritziak elkar trukitzea, eta erabakiak hartzea; hori guztia gizartean gazteek aktiboki parte har dezaten eta berezko beren biografiak osa ditzaten. Aterpea eraikitzean, gainera, gazteek zenbait trebetasun pertsonal eta taldeko beste hainbat ikasi, landu eta martxan jarri zituzten. Trebetasun horiek, bestetik, herritarren parte-hartze kontziente eta demokratikoa praktikan jartzeko beharrezkoak dira.



1. fasea: proiektuaren zirriborroa egin

1. Gogora ekarriko dugu aurretiaz zerbait interes-garririk egin ote dugun.

Egin al dugu inoiz auzoaren mesederako zerbitzurik? Kanpaina edo ekintza solidarioren batean hartu al dugu parte? Edo laguntza eske etorri al zaigu noizbait? Bizipen hura izan al daiteke gure egitasmoaren abiapuntu egokia?

2. Zer gizarte-behar landu nahi dugun zehaztuko dugu.

Gauza bat da nahi duguna egitea eta beste bat gizartearentzako baliagarria den zerbait egitea. Beraz, gure buruari galdetu beharko diogu egiazko zer gizarte-behar –orain arte bete ez dena, noski– ase dezakegun.

3. Zer zerbitzu eskain dezakegun zehaztuko dugu.

Gure gogoia piztu duen gizarte-beharra aukeratu ondoren, zer eratako zerbitzua eskain dezakegun pentsatu behar dugu. Argi izan behar dugu zerbitzu hori gure gaitasunen eta aukeren arabera izan behar dela.

4. Pentsa dezagun zer ikas dezakegun.


Proiektua gauzatu aurretik zerbait ikasi behar al genuke? Gure bizitzan, zer probetxu aterako genieke ikasketa horiei? Zer irabaziko du gutako bakoitzak horrekin?



“Ikasturtean jarduera solidario bat egitea proposatu ziguten. Nahiz eta jarduera boluntarioa izan, gogoia piztu zitzaidan eta izena eman duen. Bizipen berezia izan zen. Beharra zuten pertsonentzako elikagaiak eta jostailuak biltzeko kanpaina prestatu genuen. Ez nuen uste larri bizi den hainbeste jende zegoenik nire herrian.

Zurezko jostailuak konpondu nituen, ezertxo ere ez zuten hurrek haiekin jolas zezaten. Horrez gain, jostailu- eta elikagai-bilketa antolatu nuen. Bilketarako kartelak prestatu nituen, eta gelaz gela nahiz saltokiz saltoki joan nintzen gure egitasmoari buruzko azalpenak ematen”.

Mauricio Vasquez



COLECTA DE ALIMENTOS Y JUGUETES proiektua, Peñascal fundazioa - Bilbao

Hainbat gaztek elikagaiak eta jostailuak biltzeko kanpaina antolatu dute.

Tailerreko hainbat alderdi eta oinarritzko zenbait gaitasun lantzeko asmoz, egitasmo solidario bat egiteko aukera eskaini genien gure fundazioaren Hasierako Lanbide Prestakuntzako programako aroztegi tailerreko ikasleei.

Jardueran parte hartu zutenek, halaber, txiroekin eta gertuko nahiz urruneko beste errealitate batzuekin lanean aritzen diren hainbat gizarte-baliabide ezagutu zituzten.



2. fasea: gizarte-erakundeekin harremanetan jarri

Zerbitzu-proiektu gehienetan, kausaren batekin lotura duen gizarte-erakunde, elkarte edo GK Eren batekin lankidetzan aritzea beharrezkoa edo gomendagarria da.

1. Zer gizarte-erakunderekin aritu gaituzke lankidetzan?

Gure inguruko zer erakundek dute nolabaiteko lotura guk aukeratutako gizarte-behar horrekin? Ba al dute kanpainaren bat martxan? Gisa horretako erakunderik ezagutzen ez badugu, non aurki dezakegu informazioa?

2. Batak besteari zer eskain diezaiokegun aztertu.

Gizarte-erakundeari behar duen zerbitzua eskaini diezaiokegu? Orduetgia, joan-etorriak, baliabideak, gaitasunak... Gizarte erakundeak egiazko interesik al du guk eskaini dezakegun horretan?

Gizarte-erakunde horrek bat egin al dezake gure proiektuarekin? Eta hura garatzen lagun diezagu-ke?

3. Ados jarri.


Bi aldeek lankidetzan aritzea erabaki badute, idatzizko hitzarmen bat egin beharko dute. Hitzarmen horretan, alde bakoitzak (gizarte-erakundeak eta guk) hartzen dituen erantzukizunak zehaztuko dira, bai eta gauzatuko den zerbitzua-ren oinarritzko definizioa ere.



“Ikasgelan parte-hartzaile naiz. Nork bere iritzia ematea eta besteek entzun zaitzatela garrantzitsua dela uste dut. Arrazoibide horiek, hain zuzen ere, bat datoz Odol Bankuaren nahiarekin; erakunde horrek odola nahiz ehunak biltzen eta banatzen aitzindari izan nahi baitu.

Odol Bankuak gurera egindako lehenengo bisitan, gogo eta ahalegin handiz azaldu ziguten odola ematearen garrantzia. Uste dut, hain zuzen ere, grina horrek nire baitan piztu zuela proiektuan aktiboki parte hartzeko gogo. Odola ematea eskuzabaltasun eta elkartasun ikurra dela deritzot. Irakasleak elkartasunez jokatu zuen, baita ere, azkenera arte adorea eman baitzidan, bai kanpaina prestatzean, bai hura iragartzean, bai Odol eta Ehun Bankuaren unitatea instalatzean ere. Parte har ezazue”

Eugènia Rom Mas



CAMPAÑA DE DONACIÓN DE SANGRE *proiektua, Escola Vedruna Gràcia – Banc de Sang*

Auzoan, odola emateko kanpaina antolatu dute gazteek.

Odola ezin daitekeenez laborategian egin, egunero 1.000 odol-dohaintza behar dira Katalunian, ospitaleek eta klinikek odol nahikoa izan dezaten.

Adinez txikikoek ezin dezakete odolik eman. Hala eta guztiz ere, beste era bateko laguntza eskaini diezaiokete gazteek Odol eta Ehun Bankuari: kanpaina bat egin dute, mintzagai dugun beharraz jendea ohartarazteko; odol-bilketa antolatu dute; eta lehen baino heldu gehiago odol-emaile bihurtzea lortu dute.



3. fasea: proiektua planifikatu eta antolatu

Zer egin nahi dugun eta zer egin dezakegun argi daukagunean, proiektua planifikatu (ideiak ordenan jarri) eta antolatu (nola egingo dugun erabaki) behar dugu.

1. Proiektua definituko dugu berriz.

Ziur aski, hasierako ideia aldatu egin da, eta, ondorioz, hura zehaztu beharko dugu berriz. Proiektuaren “NAN”-a egin dezakegu, hots, idatzi batean proiektuaren ezaugarririk garrantzitsuenak bildu.

2. Egingo dugun lana antolatuko dugu.

- Zer baldintza formal bete beharko ditugu? Baime-nak, aseguruak, eta abar.
- Nola banatuko ditugu taldeko nahiz banakako ardu-rak?

- Zenbat bilera egin beharko ditugu talde osoaren nahiz lantalde txikien lana koordinatzeko?
- Zein izango da laneko gure egutegia? Agenda bat beharko dugu eta bertan hainbat gauza zehaztu, adibidez: eginbeharrak, egitekoak gauzatzeko epeak eta bileren egunak.



Proiektuaren eskema

1. Proiektuaren izena, eta zerbitzuaren definizio laburra eta argia.
2. Taldearen izena, eta taldean izena eman duten lagunena.
3. Zerbitzuaren xedearen eta gizarte-beharraren diagnostiko laburra.
4. Hartzaileak.
5. Zerbitzuarekin bete nahi ditugun helburu hautemangarriak.
6. Proiektuaren bitartez landuko ditugun alderdiak.
7. Gauzatuko ditugun jardueren edo ekintzen azalpena.
8. Lankidetzan arituko garen gizarte-erakundea edo – erakundeak.
9. Taldearen antolakuntza eta lan-egutegia.
10. Aurrekontua.

Antolakuntza orokorra (proiektu-mota guztietarako balio duena)

Egitekoak banatu behar dira, adibidez:

- koordinazio orokorra
- ekonomia
- materiala
- joan-etorriak
- artxiboa, argazkiak eta zabal-kundea
- harremanak, gizarte-erakundearekin eta beste eragile batzuekin (familiekin, Herri Administrazioarekin, auzokoe-kin, eta abar)
- hezitzaileen edo dinamizatzaileen funtzioa

Zerbitzuaren jarduerak antolatu (zehatza, proiektu-mota bakoitzaren arabera)

Adibide honetan, odola emateko kanpainaren jarduerak ekarri ditugu:

- triptikoak eta kartelak egin
- irrati-kanpaina hedatu
- kartel bat egin, kalean alderik alde jartzen diren horietakoak
- balizko odol-emaileei pertsonalki informazioa eman
- odol-emaileentzako edarizko zerbitzua prestatu eta ogitarte-koak egin
- ...

Egitekoek arduratzen direnek zer lan egin behar duten zehaztu, merezi du-eta!



3. Aurrekontua egingo dugu.

I+Z proiektuek kostu bat dute, eta kostu hori zenbatetsi beharra dago. Gainera, kostu hori ordaintzeko dirua nondik aterako dugun pentsatu behar dugu.

Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuak bat ez badatoz, bi aukera ditugu: kontu-sailletako bat beraztertu edo murriztu –neurri horrek proiektua aldatzea ekar dezake berekin–, edo, bestela ere, aukerako beste finantziazio-iturri batzuk edota finantziazio-iturri osagarriak bilatu.

4. Orain arte ikasitakoa errepasatuko dugu.

Oraindik ez gara lanean jarri eta dagoeneko anitz ikasi dugu! Ikasitakoaren berri emango diogu elkarriri. Are gehiago, ikasitakoa indartuko dugu, baldin eta horiek zerbitzua eskaini bitartean edo, are gehiago, bizitzan barrena erabilgarri suertatuko zaizkigula uste badugu.





Balizko gastuak:	Balizko diru-sarrerak:
<ul style="list-style-type: none">• joan-etorriak• materialak eta jarduerak• ekipamenduak eta azpiegiturak alokatzea• gastu osagarriak (argazkiak, proiektua ezagutzera ematea, itxiera-ekitaldia, eta abar)• beste erakunde batzuekin lanean aritzearen ondorioz sortutako gastuak• ...	<ul style="list-style-type: none">• taldekideenak (adibidez, taldeki-deek joan-etorriak beren kontura egitea)• gazte-taldearen erakundeak emandakoak• lankidetzan ari garen gizarte-erakundeak emandakoak• proiektuan interesa duten Herri Administrazioek emandakoak• enpresa pribatuenak• ...





4. fasea: proiektua gauzatu

Lanari ekiten diogunean, gerta daitezkeen ustekabeetara eta akatsetara adi egon beharko dugu, proiektua gauzatu ahala horiek zuzendu ahal izateko.

1. Aplikazioa bermatuko dugu.

Taldekideak agertzea, konstanteak izatea, beren eginkizunak gauzatzeko gai izatea, ekintzak presatzea eta taldeko kideei behar duten laguntza ematea

2. Ingurukoekin harremanetan egongo gara.

Sareko lana zainduko dugu proiektua sustatu dugun gizarte-erakundeekin. Zainduko dugu, baita ere, Herri Administrazioekin, familiekin, auzokoeekin eta lurraldeko beste eragile batzuekin dugun harremana

3. Proiektua erregistratu, haren berri eman eta hura jendarteratuko dugu.

Ez ditugu proiektuak isilean gordeko! Ez horixe! Argazkiak, marrazkiak, eskemak egingo ditugu, eta datuak ordenagailuan sartu. Gure proiektuaren berri emango dugu (web-orrian, aldizkarietan, egunkarietan, irratietan, telebistan, eta abar); Erausketa edo ikuskizun txikia antolatuko dugu...

4. Zerbitzuan ikasten ari garena gogora ekarriko dugu.

Egunez egun zerbitzuan aritzean, gauza anitz ikasten ditugu. Gauza horietako batzuekin, gainera, ustekabean egiten dugu topo. Ikasten dugunari buruz hitz egingo dugu eta ikasitakoa balioetsiko.




“Aho bete hortz geratu nintzen Murga proiektua nire hirian, Bartzelonan, egiten zela jakitean. Harrigarria da hain turistikoa den gunetik gertu horren etxebizitza eskasak egotea.

Nahiz eta arazo guztiak uxatuko ez dizkiegun, etxea konponduta samurrago biziko dira.

*Murga proiektuaren bidez bi helburu lortu nahi dira: batetik, beharra dutenen pisua konpon-
tzea, eta, bestetik, pisuaren jabeari poz ematea eta proiektuan parte hartzen duela sentiaraztea.
Aukera ona da beste pertsona batzuei laguntzeko, eta zure hiriaren beste alde bat ikusteko, bestera
ezagutuko ez zenukeena”.*

Anna Marrodán




LA MURGA proiektua, *Escoltes Catalans*

Estutasunean bizi diren pertsonen etxebizitzak birgaitzen dituzte gazteek.

Europako hiri askotan, gizarte-bazterkeriak nahiz bazterkeria ekonomikoak gora egin dute. Horren ondorioz, hirietako eremurik zahar eta narriatuetan pilatzen dira herritar txiroak. Egitate horrek beste aletxo bat jartzen du, pobreak are pobreago izan daitezten.

Ikasi eta zerbitzatzeko proiektua da ‘La Murga’. Haren bidez, elkarteko gazteak talde txiroekin batera bizi dira hainbat egunez, batetik, hobekuntzak egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen etxebizitzak birgaitzeko, eta, bestetik, ‘laugarren munduaren’ errealitatea bertatik bertara ezagutu eta harekiko sentikor bihurtzeko.



5. fasea: proiektua balioetsi

Proiektua amaitzean, gauzatutako zerbitzua eta hura egitean ikasitakoa aztertu beharko dugu.

1. Gauzatutako zerbitzuaren emaitzak ebaluatuko ditugu.

Bete al ditugu zerbitzuaren bidez lortu nahi genituen helburuak? Gauzatutako jarduerak ondo funtzionatu al dute? Ondo antolatu al gara? Aurrekontua bete al dugu? Zer-nolakako harremana izan dugu gizarte-erakundeekin?

2. 'Ikasitakoa' errepatatuko dugu.

Zer ikasi dugu bizipen horren bidez? Zer gauza berri dakizkigu orain? Bizipen horrek zer ekarri digu gutako bakoitzari? Hau da, zer alderditan gara lehen baino helduago?

3. Etorrizuneko jarduera-ildoak planeatuko dugu.

Eta orain... Zer? Behin puntu horretara iritsita, proiektuarekin jarrai dezakegu, edo, bestela, beste proiektu bati ekin diezaikegu eta aurrekoaren lekukoa beste talde bati pasa.

4. Gure esperientzia ospatuko dugu.

Jaia egingo dugu proiektua amaitu dela ospatzeko! Ospakizunean, bidenabar, proiektuaren emaitzen berri eman diezaikegu ingurukoei, bai eta gizarte-erakundeekin dugun harremana sendotu eta gauzatutako lana jendarteratu ere. Horrez gain, hartzaileak gonbidatu ditzakegu jaiaren parte hartzera.



“Bizipena oso polita izan da. Gainera, jende askok ez du horrelakorik egiteko aukerarik izaten. Oso ondo pasa eta asko ikasi dugu.

Interneteko arriskuen gaia ondo ikasi behar izan genuen, gero horri buruzko azalpenak eman ahal izateko. Beraz, proiektuan parte hartzearen ondorioz, lehen baino argiago ikusi eta hobe erreparatzen diegu Interneten izan ditzakegun arriskuei, eta beste era batera pentsatzen ditugu gauzak.

Gainera, uste dut hurrek gure adineko jendearekin jarrera hobea dutela besteekin baino; gurekin harkorrage daude era honetako gaiak lantzeko. Proiektuan parte hartuko nuke berriz, zalantzarik gabe”.

Miren Gentzane López Martín



CIBERMANAGERS proiektua, *Santa María ikastetxea, Portugaleta*

Gaztetxoek Interneteko arriskuei buruzko informazioa eman diete haur eta gurasoei.

Gaztetxo eta nerabeak komunikazioaren eta Informazioaren Teknologien eskutik sortu eta hazi dira. Hala ere, gehienak ez dira teknologia horiek beraiekin dakartzaten arriskuen jakitun.

Santa María ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleek, Pantallas Amigas elkartearekin lankidetzan, Interneteko arriskuak aztertu dituzte. Behin arriskuok azterturik, maila txikiagoetako ikasleei nahiz haien gurasoei irakatsi diete zer egin behar duten ziberherritar onak izateko.

3 Proiektu arrakastatsuen gakoak





1. Hasteko, proiektu xumea proposatuko dugu.

Adibidez, taldeak izandako bizipen positibo eta ezagun bat har dezakegu oinarri, gerora hura zerbitzu bihurtzeko.

2. Proiektu onak eredutzat hartuko ditugu.

Beste talde batzuek egindako proiektuetan oinarritzen bagara, ideia berriak sortuko ditugu, eta horiek segurtasun handiagoz garatuko.

3. Egiazko behar bat hautemango dugu.

Gizartearen mesederako zerbitzuen helburua horren beharra duten pertsonen laguntzea da; ez, ordea, gure buruari mesede egitea, edota gure egoa edo harrokeria handitzea.

4. Taldekideen banakako konpromisoak finkatuko ditugu.

Taldeko proiektuetan, zenbaitetan, norbanakoen ardurak lausotzen dira. Beraz, hasi aurretik, taldekide bakoitzaren eta guztion konpromisoa finkatuko dugu.

5. Uste osoa izango dugu pertsonengan.

Taldeko kide guztiek gauza onak eskaini ditzakete. Proiektuaren barruan, pertsona guztiari eman behar diegu protagonista izateko aukera.



“Hasieran, kirioak dantzan nituen. Hala ere, apurka-apurka lasaitzen joan nintzen. Ikastaroan parte hartu zutenek ikasteko interes handia zutela konturatu nintzen.

Haiek ez dira ikasten duten bakarrak, guretzat ere aberasgarriak baitira haien bizipenak.

Kontuan hartzekoa da, halaber, hizpide dugun tailerraren bidez etorri berriei lan-munduan sartzeko atea zabaltzen diegula. Edadeko pertsonak zaintzen ikasteko ikastarotxo eginez gero, pertsona horiei laguntzeko prest izango dira etorri berriak. Orain baieztatu dezaket bizipen honek guztiz asebetu nauela, bai pertsonalki bai eta profesionalki ere”.

Isabel Da Costa



CUIDEMOS A NUESTROS ABUELOS proiektua, *Escola Solc Nou*

Gazteek hainbat argibide ematen dizkiete adineko pertsonak zaindu nahi dituzten etorri berriei.

Gero eta adineko gehiago bizi dira bakarrik, eta etxean zainduko dituen norbaiten beharra dute horiek guztiek. Bestetik, gure herrialdera etorri berri direnetako askok lan hori egin nahi dute.

Erizaintzako zaintza osagarrietan trebatzeko ziklo teknikoko ikasleek, Cáritasek hala eskaturik, eskoletan ikasi dutena irakasten diete etxeko zainzaile aritu nahi duten etorkinei.



6. Proiektuarekin zer ikasi nahi dugun pentsatuko dugu.

Gizartearentzako zerbitzu bat eginez gauza asko ikas ditzakegu, eta ezin dugu aukera hori alferrik galdu.

7. Ondo antolatuko gara.

Gerta liteke aldeaz aurretik aurreikusitako ez ditugun zenbait zailtasunekin edo arazorekin topo egitea. Horiek guztiak gainditu ahal izateko, ondo antolatuturik egon beharko gara ezinbestean.

8. Lan egiteko eta jostatzeko denboren arteko oreka.

Lanean buru-belarri arituko bagara ere, tarteka denbora izan behar dugu lasaitzeko, jostatzeko eta ingurukoekin harremanetan egoteko.

9. Ingurukoekin harremanetan egongo gara aisetasunez.

Zenbat eta gaitasun handiagoa eduki ingurukoekin harremanetan egoteko, orduan eta arrakastatsuagoa izango da proiektua.

10. Proiektua ezagutzera emango dugu.

Proiektuaren berri emateak garrantzi handia izango du hartzaileentzat. Horrez gain, beste gaztetalde batzuegan piztu dezake proiektuarekin bat egiteko gogoia.




“Eguberrietan, Gabon-kanten urteko lehiaketan parte hartu genuen, “Atodavela” elkarteko adimen urrituekin batera. Jendea proiektuan murgildu zen, gero eta gehiago. Proiektua egin bitartean, beste ikuspegi batetik ikusi genuen guztiok ez dugula lan egiteko modu bera, eta hil ala bizi garatu beharreko “giharra” dela pazientzia.

Emaitza zoragarria izan zen. Ez genuen saririk jaso, baina hori gutxienezkoa izan zen.

Proiektuak iraun zuen bi hilabeteetan harreman handia izan genuen gazte, ikasle, guraso eta beste profesional batzuekin. Ezin ahaztuko unea bizi genuen ohol-tza gainean”.

Matias Fernández



VILLANCICOS SOLIDARIOS proiektua, *Real Conservatorio Profesional de Música de Almería*

Adimen-urritasuna duten gazteek eta kontserbatorioko gazteek Gabon-kanten lehiaketan parte hartu zuten.

Baztertuekin edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte-erakundeek, tamalez, gizarte-behar handia dute etengabe, baita IZ proiektuen behar handia ere. Gizarteratzeko bidean, talde horien parte-hartzea sustatzea abiapuntu polita da.

Beste errealitate batzuekin harremanetan egotearen ondorioz, errotik aldatzen da ordura arte protagonistek bizi-tzaz zuten ikuspegia. Proiektu horiek, beraz, itzal handia uzten dute proiektuan parte hartzen dutenen baitan.

4

Informazio
gehiago



hona ekarri ditugun proiektuei buruz

ADSI: Pasalacabra www.adsis.org

Tomillo fundazioa: Alfabetización Digital. www.tomillo.org

Asta Regia BHI: Reporteros de Barrio. www.astaregia.net

IPADE F.- Puertas de Cuartos BHI: Mediadores en Cambio Climático. www.fundacion-ipade.org

Esplai La Florida- Eduard Fontseré BHI: Jóvenes por el Barrio. www.esplai.org;

<http://aprenentatgeserveifontsere.blogspot.com>

INJUCAM federazioa: Ocupados en Construir. www.injucam.org/ocupadosseccion

Peñasal fundazioa: Colecta de alimentos y juguetes. www.fundacionpenascal.com

Banc de Sang i Teixits de Catalunya-Escola Vedruna Gràcia: Campaña de donación de sangre.

www.bancsang.net; www.vedrunagracia.org

Escoltes Catalans: La Murga. www.escoltes.org

Santa María ikastetxea: Cibermanagers. www.cibermanagers.com

Escola Solc Nou: Cuidemos a Nuestros Abuelos. www.xtec.es/centres/a8036755

“Atodavela” elkarte – Real Conservatorio Profesional de Música de Almería: Villancicos Solidarios.

www.atodavela.com; www.conservatoriodealmeria.es



web-gune interesgarriak

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.cat

Zerbikas Fundazioa: www.zerbikas.es

Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario: www.clayss.org.ar

Escoles Compromeses amb el Món: www.escolescompromeses.org

Enrédate UNICEF: www.enredate.org

Youth Action Net: www.youthactionnet.org

Youth Venture: www.genv.net

National Youth Leadership Council (NYLC): www.nylc.org

In Our Global Village: inourvillage.whatkidscando.org/global_village_project.html

Global Changemakers: www.global-changemakers.net



bibliografia

LIBURUAK

Martín, X. eta Rubio, L. (2010). *Prácticas de Ciudadanía*. Octaedro argitaletxea. Bartzelona.

Martínez, M. (2008). *Aprendizaje servicio y responsabilidad social de las universidades*. Octaedro argitaletxea. Bartzelona.

Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Octaedro argitaletxea. Bartzelona. (1. edizioa katalanez, 2006).

Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje y servicio*. Educación y compromiso cívico. Grao argitaletxea. Bartzelona.

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Ciudad Nueva argitaletxea. Buenos Aires.

GIDA PRAKTIKOAK

Rubio, L. (2008). *Zerbikas o gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Puig, J. M.; Martín X. (2007). *Zerbikas 1 gida: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbao Zerbikas Fundazioa.

Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendia, R. (2009). *Zerbikas 2 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarritzko gaitasunak garatzea*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R; Moreno, V. (2010). *Zerbikas 3 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Puig J. M. (2010). *Com fer APS en els Centres Educatius?* Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. Bartzelona.

Puig J. M. (2010). *Com fer APS en les Entitats Socials?* Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. Bartzelona.





Kolaboratzaileak:



PORTUGALETEKO UDALA
Boluntariotza Sustatzeko Saila

AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE
Concejalía para la Promoción del Voluntariado



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte-Ekintza
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

